

MUSIKA

■ BARAKALDO

Los Ranseros taldearekin dantzaldia Gurutzetako Kultur Etxean 18.00etan.

■ BASAURI

Alfaguara flamenko-jazza Kultur Etxean (Ibaigane, 2) 20.00etan.

■ BILBO

Umbilical Slug, Doctor Divago eta Virgenes Adolescentes Congreso Aretoan 20.00etan, Bilbo Hiriko VII. Lehiaketaren barnean.

The Cast El Carmen Aretoan 21.00etan.

■ GASTEIZ

XX. mendeko musika emanaldia Florida parkeko Kultur Etxean 18.15etan. Bihar ere bai.

Jesus Guridi Musika Eskolako talde instrumentalaren emanaldia Juanjo Menaren zuzendaritzapean Jesus Guridi Musika Eskolan 20.00etan.

■ GETXO

Carpe Diem eta Polyester taldeak Gwendolyne dantzalekuan 20.00etan, IV. Pop-Rock lokal lehiaketaren barnean.

■ IRUÑEA

Mal de Ojo Terminalen 21.30etan.

Los Planetas Reverendos Aretoan 22.00etan.

HITZALDIK

■ ARRIGORRIAGA

Bertsolaritzaren inguruko hitzaldia Lopategi eta Respaldia bertsolariekin Kultur Etxean 19.30etan, Korrika Kulturalaren barnean.

■ BILBO

'Individualismo, localismo y solidaridad' izeneko hitzaldia botako du Imanol Zubero Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak Carmen Parrokian 19.30etan, 'De la perplejidad a la esperanza' zikloaren barnean.

'Euskal Herriko historia literaturan' hitzaldia Patxi Zabaletaren eskutik Boulevard kafetegian 19.30etan. Antolatzaileak: AEK eta Aresti euskaltegiak.

'Indarkeria eta bakea lortzeko prozesuaren egoeraren azterketa (gaurko egoera)' mahaingurua Deustuko Unibertsitateko Paraninfoan 11.15etan. Hizlariak: Teresa Toda (Egin egunkariarekin zuzendariordea), Daniel Anido (Cadena Ser Euskadiren berri zerbitzuen burua) eta Luis Barreiro (Euskal Telebistako erredaktorea). Antolatzaileak: Deustuko Unibertsitateko Bakearen Aldeko taldeak.

■ DONOSTIA

'Irlandako emakumearen egoera' hitzaldia Ane Kar (Pakearen aldeko emakume batua) eta Nancy Graceyren (Larderia eta terrorearen aurka Familiak) eskutik Koldo Mitxelena Kulturunean 19.30etan. Antolatzaileak: Emakumeen Elkartearen Kolektiboa.

'Insumiso-objektor-PSS-Servicio Militar...' mahaingurua Altzako Kultur Etxean 19.30etan. Moderatzaileak: Txema Auzmenmendi (Herri

MUSIKA

JAVIER A. ALVARADO


KRITIKA

MIKEL LABOA

Fitxa

Kantaria: Mikel Laboa. Egitaraua: '16' diskoaren aurkezpena. Musikoak: Iñaki Salvador (pianoa), Eduardo Salvador (baxua eta gitarra), Josetxo Silgueiro (saxofoia), Aitor Landeta (bateria), Josean Artze eta Joseba Urzelai (txalaparta), Carlos Itoiz (gitarra espainola) eta Joseba Tapia (trikitixa).

Tokia: Gasteizko Principal antzokia. Eguna: Martxoaren 18a. Antolatzaileak: Korrika.



Mikel Laboak '16' diskoa aurkeztu zuen Gasteizen.

CARLOS VILLAGRAN

Estralurtarra

Mikel Laboa ez da mundu honetako bere neuronak mendeetan zehar inoiz izan diren gertaera bitxi eta arruntenez hornitu dira.

Ziur aski, ikusi egingo zuen nola gure arbasoek —zuhaitzetatik aldegin eta esku biak libere zituztela— aurreneko keinuak egiten zituzten soinu ulergaitzak ateraz. Era berean, ikusiko zuen nola eraiki zituzten tenplu handiak, nola hasi eta bukatu ziren gerra izugarriak, horiek guztiak berak gogorazi dizkigun protagonista anonimoen odolaz blaituta. Gizon eta emakume handirekin mintzatu zen, askotan adierazteazina, komunikazina ('Komunikazioa-Inkomunikazioa') azaltzen saiatzearen Historiak bere erraiten erreklamoa gisa erabiltzen dituen horietakoekin alegia. Artistekin eta jende arruntarekin izan zituen harremanak, hots, beraiek ere historia idazten duten horiekin, nahiz eta, idatzi, minuskulaz eta letra txikiz egin; hain zuzen ere bakardadearen tristuraz, pago-motzen zizpuzuek, lagun baten traizioaz edo etxeko supazterren bero solidarioaz hitz egiten ditugunekin.

Laboa estralurtar bat da eta, jadanik gure artean ez dauden beste batzuek bezala (estralurtarrak ere hiltzen dira; adibidez, dagoeneko urtebete iragan da Astor Piazzola, Camaron de la Isla... joan zitzaizkigunetik), aparteko dohain bat du: bere abestietan inpulso primitiboak, akordeak eta istorioak sintetizatzen dira, tartekatuta agertzen direnak eta, behin entzunda, gizaki kontzientzia akasduen guztiek gehien-gehienetan berrogeialdian duten alde erdi-ilun horretan kateatuta gelditzen direnak.

Kontatzen duena kontatzeko eta era horretan egiteko gainera, lurtarrak marfilezko dorreek eta hartutako distantziek eskaintzen dituzten inpartzialtasunera eta distantzia objetibora igo-

tzen dira. Laboa ez, ordea. Bera ertzean dago, mugan; so eginez, agian beste inork ez begiratu ez gogoratu nahi ez duena gogoratuz, baina, aldi berean, sortuz eraikitako azken harriaren gainean, sortutako azken akordearen gainean, idatzitako azken olerkiaren gainean.

Horregatik guztiagatik, beste mundu batzuetatik etorri eta Gaubea, Orozko edo Maulekoa den koloso honen erreztalal munduaren eta bertako protagonisten gaineko prospekzio modukoak dira. Iraganera itzularazten gaitu, etorkizunari arreta jartzera behartzen gaitu, geure baitarok mintzatzeko zaigu, gutaz eta guretzat barre egiten du; abestu, jo, interpretatu, oihukatu, gozo-gozo hitz egiten du —Marik berak bere konfidentziak egiten zituen gisa berean— eta, azkenean, lore sorta, dantzari eta txaloen artean, ia emozionatu ere —edozein gizaki hilkorri gertatuko zitzaiokeen bezala— egiten da.

Barkatu egingo digute gure irakurle maiteek alde batera utzi izana horrelako ikuskizunen berri ematen dugunean erabili ohi diren iruzkinak. Bagenuen mintzatzea erreztalal iraun zuen ordu t'erdiaz, eskaini zituen abestiez eta bertan entzutea gustatuko zitzaizkigunez, baita ere Iñaki Salvador buru zutela Laboari lagundu zioten musikari bikainez, azaldu zuen ahots oraindik ere harrigarriaz —agian bolumen gutxiago du, baina tankera hobia eta baliabide gehiago—, edo antzokia mukurru bete zuen eta bere alde erabat zuen publiko heterogeneoaz... Baina zalan-tzazkoa iruditzen zait oso iruzkin horietako batek berak ere oraingo honetan nolabait zirriboratu ere egin ahal izatea Korrikaren bederatzigarren edizioa dela-eta antolatutako kontzertu-omenaldi honetara hurbildu ginenok han entzun eta sentitu genuen guztia.

Irratia).

Bikotearen artean gertatzen denari buruzko hitzaldia Okendoko Kultur Etxean 19.30etan.

■ ERRETERIA

'Zaborrak eta errauskailuak' hitzaldia Dolores Romanoren (Greenpeace) eskutik Raina Aretoan 19.30etan, 'Birziklapena Bai!' jardunaldien barnean. Antolatzaileak: EKI.

■ GASTEIZ

'Becerro de Bengoaren biografia xehetasunak eta agertu diren gauzatean nola isladatzen diren' hitzaldia Maria Camino Urdiain Arabako Agiritegi Historikoaren zuzendaria eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kidearen eskutik Arabako Agiritegi Historikoan 19.30etan.

'Gaur eguneko Euskararen egoera Araban' mahaingurua Odon de Aprain Ikastolan (Nafarroako Erregeak z/g) 19.00etan. Hizlariak: Xabier Aizpurua Hizkuntz Aholkularitza eta informazioari buruzko zuzendaria, Carlos Caballero Jaurlaritzako Kultur Ordezkarria, Geu elkarte eta Euskal Herriaren Euskaraz (EHE). Moderatzaileak: Txema Ramirez de la Piscina Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Arrazoiak: Odon de Aprain Ikastolaren X. Urtemuga.

'Beste aitzindaritzaz-estilo bat' hitzaldia Emakume Enpresarien Elkarteak antolatuta Araba Aretoan 20.00etan.

ANTZERKIA

■ BILBO

Bederen 1 taldeak 'Errenta' obra antzeztuko du Arriaga Antzokian 20.00etan. Bihar gaztelaniaz.

Peter Roberts eta C. Santamariak 'Tik tak' mimo antzerkia eskainiko dute Iralako Auzo Etxean 20.00etan, Korrikaren alde Euskal Txokoak antolatuta.

■ GALDAKAO

'K2 Iparraldeko Hormatik' mendi proiektzioa Kultur Etxean 19.30etan. Aurkezleak eta solaskideak: Juanjo San Sebastian mendizalea eta Kepa Lizarraga medikua.

■ GASTEIZ

Teatro de la Danza taldeak Federico Garcia Lorcaren 'La Zapatera Prodigiosa' obra antzeztuko du Principal Antzokian 20.30etan.

■ MIARRITZE

In Fraganti taldeak 'Hala bazan, ez bazan, sar dadila...' obra antzeztuko du Colise Antzokian 21.00etan.

■ PORTUGALETE

El Tenderete txotxongilo taldearen emanaldia Zilbot kafetegian (Abero Etorbidea, 10) 20.00etan.

■ ZORNOTZA

Avatar Brasilgo antzerki taldeak 'Kao' antzerki-dantza obra taularatu du Zornotza Aretoan 21.00etan.

BERTSOLARITZA

■ BEASAIN

'Fauna txiki bat bertso berrian' izeneko emanaldia

Jon eta Aitor Sarasuaren eskutik eta Juan Luis Lekunberri pianojoleak lagunduta. Usurbe Antzokian 20.00etan.

■ GASTEIZ

Bertso afaria San Marcos tabernan 20.30etan. Bertsolariak: Gasteizko bertso eskolakoak.

ZINEMA-BIDEOA

■ ANDOAIN

Bideo emanaldia Urigain Kultur Etxean 19.30etan, Abiadura Handiko Trenbidearen Aurkako Asanbladak antolatuta.

■ BILBO

'Le moulin de Daudet'. Zuzendaria: Samy Pavel. Arte Ederretako Museoan 17.00etan. Jatorrizko bertsoian. Bihar eta etzi ere bai.

'Palestina' diapositiba emanaldia Zorrotzako Auzo Etxean (Fray Juan, 29) 19.00etan, Zorrotzako Bidaia, Natura, eta Elkartzasuneko II. Diapositiba erakustaldiaren barnean.

■ DONOSTIA

'Meme y el Sr. Bobo' eta 'La leyenda de un hombre malo' filmeak Lugaritz Kultur Etxean 20.00etan. Zuzendaria: Myriam Ballesteros.

■ GASTEIZ

'No amaras' filmea Krzysztof Kieslowskiren zikloaren barnean Luis de Ajuria Aretoan 19.30etan.

'Quatre Aventures de Reine et Mirabelle'. EVIT-Lko (Perito. Nieves Cano, 12) emanaldi aretoan 20.00etan. Eric Rohmerren zikloa.

■ GETXO

'Dias contados'. Zuzendaria: Imanol Uribe. Areetako Gran Cineman 19.00etan.

■ LASARTE-ORIA

'En el filo de la duda'. Manuel Lekuona Kultur Etxean 22.00etan.

■ LEZO

'Namibia eta Bostwand' ikusizunezko proiektzioa Alhondigan (Santo Cristo plaza) 19.30etan.

JARDUNALDIK

■ BAKIO

Txakolinaren prestakuntza eta motibazio planari buruzko ikastaro informetiboa emango dute apirilaren 27tik aurrera. Izena Udaltxean eman behar da, Urkizaur-Alde kaleko 28. zenbakian. Informazio gehiago bertan edota ☎ 619 40 01 telefono zenbakian.

■ BERGARA

Dantza ikastaroa antolatu du 14 urtetik gorakoentzat Jardun elkarteak Kultura taldeak. Martxoaren 28tik maiatzaren 9ra bitartean izango da ikastaroa. Irakaslea: Auresku eta dantza askatua Euskal Herriko txapelduna den Eduardo Muramendiaren. Matrikulak 3.000 pezeta balio du bazkideentzat eta 3.500 gainontzekoentzat. Izena emateko Jardun elkartera jo edota ☎ 76 08 19 telefono zenbakira deitu.